

Putzu sakon eta ilun bat



**ZIGOR ETXEBURUA
URBIZU**
ZINEGOTZIA

Dirutan, ehuneko hogeiko murrizketa. Hori da kasinoa zena udaletxe bihurtu zuen Donostiako alkateak euskarari opa diona, oraindik amaitu ez den urterako. Arloko eragile batzuk laguntza eske inguratu zaizkio, ezer egite-rik ba ote duen galdetzera, herabeti (beste batzuk hori ere ez, ikusteko baitago datorren urteak berritik ezer dakarren, zaharretik ez bada). Blindatzea zuen murrizketetatik euskararen hedapenarekin lotura duen oro, baina horrek ez lioke emango hiriko uharte maitatuan paratutako eskultura hanpatu batek adina sonarik. Kokotsa altxa, besoa luzatu eta eskuko keinuz haizatu ditu eskaleak.

Egun gutxitara, alkate jaunak ez du agerraldia egiteko erreparorik izan, zer eta euskarari aldi baterako babesa adierazteko. Segidan, oinez egin du hurrengo agerraldirainoko kilometro erdia, mugikortasun jasangarriaren aginduei men eginez, txintxo. Auzotarrrek aspaldidanik espero dituzten lan batzuei hasiera emateko agerraldian, itsas azpiko trenbidea egiteko lanek izango duten gainkostuaz galdetu diote. Tinko adierazi du, “behar den dirua jarri beharko da obra horiek bukatzeko”. Hori esanda, kasinoa izan zen eraikinerak itzuli da agintari gorenara.

Pentsakor dator alkatea, amets moduko batean murgilduta. Kasino batean ageri da bera, erruletaren alboan. Mahai tapiza hareazkoa da, eta mahaiaren inguruan gorbatahunak irribarretsu ageri dira. Ez dirudi kezkarik dutenik apustuaren arriskuarekin, zoriarekin, badirudi zenbaki gorri eta beltzen gainean ageri diren fitxak ez direla eurenak, norbaitek emanak baizik. Bitxia erruleta ere, trenbide itxura duela iruditu zaio. Halako batean, abiatu da bolatxoa. Drrrrrrrr, kank, kank, eta, hara! Erruletan zulo bat zabaldu eta bertara erori da. Isiltasuna hedatu da jokalarien artean, baina ez luzerako. Fitxak galdu ordez, pilatu egin dituzte, bankuak gehiago ekarri baitizkie! Irriak zirenak barre algarak bihurtu dira. Eta beste bolatxo bat jokoan jarri dute berriz ere. Drrrrrrrr, kank, kank, eta, bat-batean, isiltasuna. Bolatxo desagertu egin da, baina baita mahai gainean zeuden fitxa guztiak ere! Gorbatahunetako batek bolatxo berriak eta fitxa gehiago eskatu ditu...

Orduantxe itzartu da goi agintaria, kasinoa izan zen eraikinaren sarreran. Hori koloreko aterki batzuen azpitik oihuka ari zaizkio, “Metro pasantea gelditu!”. Batera, zapatak hareaz bete zaizkiola ohar-tu eta izutu egin da, gazurak zapata italiarrak kaltetuko dizkiolakoa. ●

Birusa denontzat, paperak denontzat



**ITZIAR BARDAJI
GOIKOETXEA**
IRAKASLEA

CCOVID birusak aldatzen ez dituen gauzen artean: Espainiako Estatuan eta gure Euskal Herrian, migrazioaren kontrolaren grina migratzaileen ongizatearen gainetik dago.

Niri, pertsona natiboa, errealitate postapokaliptiko moduko honetan medikura joatea zaila eta Ogasuneko zailtza bat argitzea ezinezkoa bihurtu bazait, pentsa nolako labirinto burokratikoari egin behar dion aurre paperik gabeko pertsona batek. Indarkeria administratiboak berez zaurgarri direnak zaurgarriago egiten ditu. Paperik gabe... lan eskubideak? Pilatuta ez beste modu batean bizitzeko aukera? Medikura teo-

rian bai baina praktikan? COVIDak eragindako krisia dela eta ematen diren laguntzak?

Apirilean hasi ziren hainbat ahots ezohiko egoera dela eta migratzaileen premiazko erregularizazioa eskatzen. Urte erdia alferrik igaro da. Pasa den urriaren 17an estatuko hainbat hiritan mobilizazio koordinatua egin zen egoera salatzeko eta gobernuak beste alde batera begiratu nahi du. Baina alde batetik “*los españoles primero*” diskurtsoa dator eta bestean migratzaileak gero eta antolatuko daude. Sandwich bikaina Sánchez eta Podemosentzat. Eta behingoz, #PaperakDenontzat. ●

OHARRA: joan den asteko *Colón* artikulua Edu Zelaieta Antaren izenean argitaratu genuen, baina Itxaro Bordak idatzitakoa da.